

Koiuntura di-da batean

2017ko uztaila

Aurkibidea

1. EAErako aurreikuspenak
 2. Afiliazioa
 3. Langabezia erregistratua
 4. Inflazioa
 5. Konfiantza
 6. ELGEren aurreikuspenak
- Eranskina

1. EAEko ekonomiarentzako aurreikuspenak gorantz berrikusi dira.

2017rako espero den hazkunde tasa bi hamarrenetan igo da, %2,7 arte.

2. Ekainean afiliazioa %2,2 areagotu zen.

Emakumeen gehikuntza bizkortu da eta gizonena, berriz, egonkortu.

3. Langabezia %10eko erritmoan jaisten ari da.

Langabeziaren beherakada nabarmen handiagoa da gizonen eta lehenago lan egin duten lagunen artean.

4. KPI indizeak beheranzko norabidea bizkortu du.

Maiatzean %2,0an kokatu zen, baina Estaturako aurreratu den ekaineko datuak jaitsiera handia iragartzen du.

5. EAEko familiek baikortasuna berreskuratu dute.

Lehenengo aldiz 2014tik, konfiantza indizeak balio positibo bat jaso du.

6. Munduko hazkundeak hobera egin du, baina ez behar beste.

ELGEk %3,5eko gehikuntza espero du aurten eta %3,6, berriz, datorren urtean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

EAE-RAKO AURREIKUSPENAK

EAEko ekonomiarentzako aurreikuspenak gorantz berrikusi dira

BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Oro har, munduko ekonomiak eta, bereziki, EAEko ekonomiak 2017ko lehen seihilekoan izan duten bilakera bikainak gorantz bultzatu dituzte Ekonomia eta Plangintzak martxoan argitaratu zituen aurreikuspenak. Oinarritzko adierazleek erakutsi duten joera positiboak %2,7ra gorarazi du EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspena 2017ko batez bestekoan. Datorren urtean hazkunde tasa %2,3an kokatuko da. Goranzko zuzenketa barne eskariaren bizitasun handiagoan oinarritu da, kanpo saldoak hazkundeari hamarren bat edo beste kenduko dion bitartean. Familiek kontsumoan egingo duten gastuaren gorakada esanguratsuak eta kapital eraketa gordinak barne eskaria bultzatuko dute, etorkizuneko bilakaeraz ekonomia eragileak baikorrak diren testuinguru batean.


Azken kontsumoa

Urte arteko aldakuntza tasa



Inbertsioa


Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren jarduerak hedaldia erakutsiko du datozen epealdietan eta urteko hazkundea %2,5ean eta %2,7an kokatuko du, hurrenez hurren, 2017an eta 2018an. Gorakada biziagoa izango da ekipamendurako ondasunen atalean, barne eskariak eta EAEko industria produktuak eskatzen dituzten merkataritza bazkide nagusienak uste zena baino bilakaera hobea izan dutelako.


Industriaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa



Eraikuntzaren balio erantsia

Urte arteko aldakuntza tasa




Lehen hiruhilekoan eskuratu zuen datu onaren ondoren, eraikuntzak hazkunde joera egonkorragi eutsiko dio 2017 osoan zehar. Urte osoko batez bestekoan, %2,0ko hazkunde jasoko duela aurreikusten da. Datoren urterako, moteltze arina aurreratzeko da, hazkunde tasa %1,6an kokatuko duena. Balio erantsia urte askoan jaitsi ondoren, sektorearen susperraldia finkatutzat jo daiteke orain.

Zerbitzuek berriro erakutsiko dute aurten EAEko eskaintzaren norabide egonkorrena eta dinamikoena. Izan ere, 2017an sektorea %2,9 areagotuko dela aurreikusten da. Eraikuntzan bezala, zerbitzuetan ere nolabaiteko apaltzea aurreikusten da datoren urteko azken hiruhilekoetan eta, horren ondorioz, 2018ko gehikuntza %2,4ra motelduko da.

Zerbitzuen balio erantsia


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Ekainean afiliazioa %2,2 areagotu zen

Gizarte Segurantzako afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren ekaineko afiliazioaren datuen arabera, EAEn 20.000 lanpostu baino gehiago sortu ziren azken urtebetean eta kotizatzen dutenen kopuruak 933.000 pertsonen langa gainditu zuen. Horren ondorioz, afiliatuen kopuruak 2010eko udan zegoen maila berreskuratu du. Urte arteko aldakuntza tasa %2,2ra igo zen ekainean eta aurtengo lehen sei hilekoaren datua zenbaki horren zertxobait azpitik (%2,1) geratu zen. Berrito ere, emakumeek protagonismo berezia izan zuten hazkunde horretan, zeren eta beraien gehikuntza erritmoak (%2,4) lau hamarrenetan gainditu zuelako gizonena (%2,0). Orobat, erritmoa bizkortzeko joera erakutsi zuen 2017ko hilekoetan, gizon afiliatuen egonkortasunaren aldean.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Aurreko hilekoetan bezala, eraikuntzak (%1,5) eta industriak (%1,8) gehikuntza garrantzitsua erakutsi zuten, baina afilazioaren gorakadan bizitasun handiena aurkeztu zuen sektorea zerbitzuak izan ziren. Hain zuzen ere, zerbitzuek %2,4ko hazkundea jaso zuten, batez ere ostalaritzaren (%4,8) bilakaerari esker, turismoak bultzatuta. Halaber, azpimarratu behar dira merkataritza (%1,1), kontsumoaren sendotasunak bultzatuta, higiezinaren jarduerak (%6,4), egoitzen arloaren susperraldiak lagunduta, eta hezkuntza (%7,1). Aitzitik, finantza alorreko jarduerak berriro galdu zuten enplegu gehien (%-4,7), bankaren sektorean oraindik doikuntzak egiten ari direlako.

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2016ko ekaina	2017ko ekaina	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	913.322	933.445	20.123
Industria manufakturagileak	170.682	173.727	3.045
Merkataritza	137.058	138.634	1.576
Osasun arloko jarduerak	88.873	91.467	2.594
Hezkuntza	62.910	65.365	2.455
Ostalaritza	62.414	66.860	4.446
Administrazio jarduerak	61.151	64.085	2.934
Eraikuntza	52.939	53.964	1.025
Lanbide jarduerak	52.802	53.620	818
Administrazio publikoa	46.472	46.643	171
Garraioa	38.920	39.990	1.070
Etxeko langileak	31.234	31.250	16
Bestelako zerbitzuak	28.089	27.610	-479
Informazioa eta komunikazioa	21.160	21.436	276
Finantza jarduerak	19.216	18.318	-898
Jarduera artistikoak	14.040	14.940	900
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.670	13.481	-189
Ur horniketa	5.757	5.795	38
Higiezinaren jarduerak	3.644	3.878	234
Energia horniketa	1.654	1.767	113
Erauzketa industriak	594	567	-27
Lurraldez kanpoko erakundeak	40	48	8

Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa.

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Langabezia %10eko erritmoan jaisten ari da

Langabezia erregistratua guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Langabezia erregistratuaren ekaineko datuen argitaratzeak jaitsiera erritmoa %10aren inguruan egonkortu dela baieztatzen du. Zehazkiago adierazita, 2017ko lehen erdian lortutako batez bestekoa % -9,8 izan zen, 2016an eskuratutako % -8,8 eta 2015eko % -6,7 baino handiagoa. Beraz, langabeziaren jaitsiera erritmoa bizkortu da aurtur, nahiz eta azken hilekoetan leuntze arina ere hauteman den. Izan ere, ekainean lortutako datua (% -9,1) 2017an igaro diren sei hiletakoetan artean txikiena da. Tasa horrek esan nahi du aurtengo ekainean iazkoan baino 13.156 lagun gutxiago zeudela lanik gabe eta Lanbideko bulegoetan izena emanda 131.269 lagun geratzen direla, 2010eko irailetik jaso den zenbaki apalena delarik.


Langabezia erregistratua. Emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Langabezia erregistratua. Gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gazteak
Urte arteko aldakuntza tasak



Langabezia erregistratua. Atzeritarrak
Urte arteko aldakuntza tasak




Langabeziaren beherakada esanguratsuagoa da gizonen artean (%-12,2) emakumeen artean (%-6,6) baino. Halaber, bizitasun handiagoa hauteman da gazte langabeen jaitsieran (%-15,8), baina kasu horretan gorabehera handiak izaten dira bilakaeran. Aurten nabarmendu behar den ezaugarri bat da bateratze garrantzitsua gertatu dela bertoko (%-9,2) eta atzerriko (%-8,6) langabeen murrizketan, duela urtebete bat bi taldeen arteko diferentziala sei puntutik gorakoa zenean. Sektoreka aztertuta, langabeziaren jaitsiera biziagoa da industrian eta eraikuntzan lan egin zuten pertsonen artean, zerbitzueta zenbakiak apalagoak diren bitartean. Orobat, deigarria da lan eskarmenturik ez daukaten lagunek lanpostu bat lortzeko orduan aurkitzen dituzten zailtasunak.

Langabeak

	2016ko ekaina	2017ko ekaina	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	144.425	131.269	-13.156
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	23.678	21.400	-2.278
Bizkaia	81.672	75.351	-6.321
Gipuzkoa	39.075	34.518	-4.557
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	65.657	57.669	-7.988
Emakumeak	78.768	73.600	-5.168
25 urtetik beherakoak	8.314	7.003	-1.311
25 urte baino gehiago dutenak	136.111	124.266	-11.845
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	3.266	2.941	-325
Industria	17.995	15.878	-2.117
Erakuntza	13.959	11.366	-2.593
Zerbitzuak	93.206	85.983	-7.223
Lehenago lan egin dutenak	128.426	116.168	-12.258
Lehenago lan egin ez dutenak	15.999	15.101	-898
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzeritarrak	22.925	20.955	-1.970

INFLAZIOA



KPI indizeak beheranzko norabidea bizkortu du

KPI indize orokorra
 Urte arteko aldakuntza tasa


Inflazioak sei hamarrenetan murriztu zuen urte arteko tasa maiatzaren eta %2,0an kokatu zen, gasolinaren eta turismoaren merkatzeak bultzatuta. Hori horrela izanda, urte hasieran jaso ziren %2,5aren eta %3,0aren arteko tasak urrun geratu dira. Halaber, Estaturako ezagutarazi den ekaineko aurrerapenak adierazten du hileko horretan ere moteltzeak jarraipena izan zuela.


KPIaren banaketa
 Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	2,0	2,0
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	-0,4	-0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	0,4	0,1
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,8	0,8
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	7,0	1,2
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	4,3	0,3
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	8,5	0,9

Azpiko inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak

Hondar inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak


Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Prezioen moteltze hori batez ere bi talderen portaerak eragin zuen. Alde batetik, garraioarekin lotura daukaten zerbitzuek eragin handia izan zuten, beraien aldakuntza tasa ia hiru puntu jaitsi zelako, %3,4 arte, lehenago aipatu den erregaien merkatzearen ondorioz. Beste aldetik, aisialdi eta kulturaren salneurriek ere parte hartu zuten moteltze horretan, %2,1eko tasa batekin, apirilekoa baino bi puntu eta bi hamarren txikiagoa baita, turismo paketeen merkatzearengatik, Aste Santuaren efektua desagertuta. Azkenik, eta aurkako norabidean, komunikazioak taldeko urte arteko tasaren igoera azpimarratu behar da, sei hamarrenetakoa, %2,1ean kokatu arte, telefono zerbitzuen garestitzearen ondorioz, 2016ko maiatzean aldaketarik izan ez zuten bitartean.

KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko maiatz


	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	2,0	1,9	1,4
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	1,1	1,1	1,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	1,5	2,1
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,1	0,3
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	5,3	5,4	2,0
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,3	-0,4	-0,1
Medikuntza	1,5	0,9	1,0
Garraioa	3,4	3,4	2,8
Komunikazioak	2,1	2,0	-1,4
Aisia eta kultura	2,1	1,2	0,5
Hezkuntza	1,6	1,0	0,6
Jatetxeak eta hotelak	2,1	1,8	2,3
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,7	1,1	0,8

Iturria: INE eta Eurostat.

KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA


EAEko familiek baikortasuna berreskuratu dute

Familien konfiantza indizea




EAEko familien konfiantza indizeak +5eko balioa hartu zuen 2017ko bigarren hiruhilekoan. Datu hori lehen balio positiboa da 2014tik eta zortzi puntutan hobetu du aurreko hiruhilekoko emaitza. Adierazle horrek gozatzeko joera garbia erakusten du eta aurreko urteetako ezkortasunetik urrundu da. Datu globalaren oinarrian hainbat ezaugarri daude, hala nola EAEko familiek ekonomia orokorraren hobekuntza begi-bistakoa aurreikus-ten dutela eta enpleguaren bilakaeraz igurikimen baikorrak dauzkatala. Beste aldetik, aurreikuspen posi-tibo horiek ez dira iritsi kontsumitzaileek beren familien egoera ekonomikoaz duten iritzira eta horrek baldin-tzatzen du familien aurrezteko ahalmenaren igurikimenen susperraldi hutsala, aldagai hori oraindik balio ezko-rretan murgilduta dagoelako.


Ekonomia orokorra




Langabeziaren bilakaera



Familien ekonomia



Aurrezteko ahalmena



Iritzi inkesta horren arabera, EAEko kontsumitzaileak zuhurrak dira etxerako artikuluak erosteko une egokia ote den baloratzeko orduan eta adierazle horrek atzerakada neurritsua izan du. Beste aldetik, erosketa handiak egiteko asmoa neurtzen duen adierazleak hoberantz egin du eta zertxobait igo da etxebizitza eta automobila erosteko asmoa. Laburbilduz, EAEko familiek erosketa handiak eta inbertsioak egiteko asmoa urratsez urrats berreskuratzen ari da, nahiz eta familien zati batek garestitze bizkorra aurreikusten duen.

EAEko familien konfiantzak erakutsi duen hobekuntza Estatuko eta Europar Batasuneko familietan ere hauteman zen. Estatuan ere, konfiantza indizea balio positibotan kokatu da eta Europar Batasuneko multzoan pausukako susperraldia nabaritzen da, baina oraindik indizea balio negatibotan dago kokatuta. Europan, Frantzia, Italia eta Erresuma Batua nabarmendu behar dira. Hiru herrialde horietan ziurgabetasun politikoak kontsumitzaileen igurikimenak nabarmen iluntzen ditu. Aurreikus daitekeen Brexitaren eta hari lotuta dauden negoziazioen eraginak Erresuma Batuko ezkortasuna baldintzatu du.

FAMILIEN KONFIANTZA INDIZEA


	2015	2016	2016				2017	
			I	II	III	IV	I	II
EUSKADI	-6	-5	-7	-3	-5	-3	-3	5
Eurogunea	-6	-8	-8	-8	-8	-6	-5	-3
Europar Batasuna	-4	-6	-6	-6	-7	-6	-5	-3
Frantzia	-17	-14	-15	-14	-14	-13	-9	-8
Alemania	0	-4	-6	-3	-3	-2	0	3
Erresuma Batua	3	-3	2	-1	-6	-5	-5	-6
Italia	-6	-9	-4	-8	-12	-11	-14	-16
Espainia	0	-4	-2	-3	-6	-4	-3	2
Herbehereak	6	4	-2	1	5	11	16	15
Portugal	-12	-12	-12	-13	-13	-8	-5	1

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Munduko hazkundeak hobera egin du, baina ez behar beste

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomia %3,5 haziko da 2017an eta %3,6, berriz, datorren urtean. Izan ere, munduko ekonomia aurten modu neurritsuan bizkortuko dela aurreikusten da eta hobekuntza hori 2018ra luzatuko da. Hala ere, oraingo aurreikuspenek hazkunde tasak aurreko batez bestekoaren azpitik uzten dituzte eta erakundeak zalantzan jartzen du tasa horiek nahiko izango ote diren ELGEko herrialdeen ongizatean gehikuntza sendoak lortzeko.


ELGEren ekonomia aurreikuspenak

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,0	3,5	3,6	0,2	=
AEB	1,6	2,1	2,4	-0,3	-0,4
Eurogunea	1,7	1,8	1,8	0,2	0,2
Alemania	1,8	2,0	2,0	0,2	0,3
Frantzia	1,1	1,3	1,5	-0,1	0,1
Italia	1,0	1,0	0,8	=	-0,2
Erresuma Batua	1,8	1,6	1,0	=	=
Kanada	1,4	2,8	2,3	0,4	0,1
Japonia	1,0	1,4	1,0	0,2	0,2
Txina	6,7	6,6	6,4	0,1	0,1
India	7,1	7,3	7,7	=	=
Brasil	-3,6	0,7	1,6	0,7	0,1
Besteak	2,4	4,6	3,8	1,9	0,6


Iturria: ELGE.

AEBetako BPGa


Urte arteko aldakuntza tasak

**Euroguneko BPGa**


Urte arteko aldakuntza tasak

**Alemaniaiko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak

**Erresuma Batuko BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




Enpresen eta kontsumitzaileen konfiantza sendotu izanak, industria ekoizpenaren hazkundeak, enpleguaren eta nazioarteko merkataritzaren susperraldiak lagunduko dute munduko BPGa hobetzen eta 2016ko %3,0tik 2018ko %3,6ra igaroko da hazkundea. Halere, beheranzko zuzenketak egiteko aukerak bere horretan dirau, finantza arriskuengatik, ekonomia aurreratueta eta garatzen ari diren dauden ahultasunengatik eta soldaten hazkunde txikiarengatik.

Aurreikuspen horien arabera, susperraldiak aurrera jarraituko du AEBetan, %2,1eko hazkunde batekin 2017an eta %2,4koa, berriz, 2018an. Euroguneko erritmo iraunkorra (%1,8) jasoko du. Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, Txinak lurreratze leunari eutsiko dio eta Indiak bere BPGa %7,3an finkatuko du aurten eta %7,7an 2018an.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Iturria: ELGE.

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
BPG	2,9	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9	2,8
Familien kontsumoa	3,1	2,9	3,3	3,4	3,1	2,9	3,0
Administrazioaren kontsumoa	1,8	2,0	2,4	2,7	0,8	3,0	2,5
Kapital eraketa gordina	2,8	2,8	3,4	3,7	3,1	3,2	2,9
Barne eskaria	2,8	2,7	3,1	3,3	2,7	3,0	2,9
Esportazioak	0,6	2,3	4,2	3,0	1,6	0,3	0,7
Inportazioak	0,6	1,6	3,9	3,2	1,3	0,4	0,9
Lehen arloa	13,4	24,3	11,6	2,8	-0,7	-7,3	2,6
Industria	3,9	4,9	4,8	2,4	2,9	3,0	2,0
Eraikuntza	0,5	-0,2	-0,3	2,7	1,9	1,9	2,1
Zerbitzuak	2,9	2,8	3,0	3,4	3,1	3,1	3,1
Balio erantsi gordina	3,1	3,2	3,3	3,1	3,0	2,9	2,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	1,1	2,0	3,2	3,2	2,9	3,1	3,0

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017			2017	2018
	II	III	IV		
BPG	2,7	2,6	2,6	2,7	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,4	2,3	2,5	2,2
Familien kontsumoa	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,4	1,4	1,5	1,7	1,8
Kapital eraketa gordina	2,9	3,0	3,3	3,0	3,2
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,6	2,5	2,7	2,5
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-6,3	-7,8	-6,0	-4,4	-10,2
Industria	2,6	2,5	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,9	2,0	2,2	2,0	1,6
Zerbitzuak	2,9	2,9	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,7	2,7	2,7	2,7	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,6	2,5	2,7	2,0
Enplegua	1,9	1,9	1,7	1,9	1,5

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
CEPREDE	2,9	2,8	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,7	2,4
BBVA	2,8	2,9	Confebask	2,5	—
Funcas	2,8	—	Laboral kutxa	2,3	—

Iturria: CEPREDE (2017ko ekaina), BBVA (2017ko maiatza), Confebask (2016ko abendua), Laboral Kutxa (2016ko abendua), Funcas (2017ko maiatza) eta Hispalink (2017ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
BPG	3,2	3,2	3,4	3,4	3,2	3,0	3,0
Kontsumo pribatua	2,8	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0	2,5
Kontsumo publikoa	2,0	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0	0,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	6,0	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2	3,8
- Aktibo finko materialak	6,5	3,1	4,4	3,4	2,7	2,2	3,8
- Eraikuntzan	4,9	1,9	2,3	1,8	1,6	1,9	3,0
- Ekipamendu ondasunetan	8,8	5,0	7,4	5,7	4,2	2,6	4,9
- Jabetza intelektualaren produktuak	3,6	2,9	4,0	3,2	2,0	2,4	4,2
Nazio eskaria (ekarpena)	3,3	2,8	3,5	2,9	2,5	2,2	2,2
Esportazioak	4,9	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4	8,4
Inportazioak	5,6	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3	6,4

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,0	2,5	Intermoney	2,8	2,3
Axesor	2,8	2,3	Repsol	2,9	2,7
BBVA	3,0	2,7	Santander	2,8	2,2
Bankia	2,9	2,5	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,7
CaixaBank	2,8	2,4	BATEZ BESTE	2,8	2,5
Cemex	2,9	2,4	Gobernua (2017-07)	3,0	2,6
CEEM-URJC	2,8	2,6	Espainiako Bankua (2017-04)	2,8	2,3
CEPREDE-UAM	2,8	2,6	Europar Batzordea (2017-05)	2,8	2,4
CEOE	2,5	2,3	NDF (2017-04)	2,6	2,1
FUNCAS	2,8	2,5	ELGE (2017-03)	2,5	2,2
ICAE-UCM	2,7	2,5	The Economist (2017-06)	2,8	2,3
IEE	3,0	2,4	Consensus Forecast (2017-06)	3,0	2,4

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2015	2016	2016				2017
			I	II	III	IV	I
AEB	2,6	1,6	1,6	1,3	1,7	2,0	2,1
Txina	6,9	6,7	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9
Japonia	0,6	1,0	0,5	0,9	1,0	1,6	1,3
Kanada	0,9	1,4	1,3	1,1	1,5	2,0	2,3
Europar Batasuna	2,2	1,9	1,8	1,8	1,9	2,0	2,1
Eurogunea	2,0	1,7	1,7	1,6	1,8	1,8	1,9
Alemania	1,7	1,9	1,8	1,8	1,7	1,8	1,7
Frantzia	1,3	1,2	1,2	1,1	0,9	1,2	1,0
Erresuma Batua	2,2	1,8	1,6	1,7	2,0	1,9	2,0
Italia	0,8	0,9	1,1	0,8	1,0	1,1	1,2
Herbehereak	2,0	2,1	1,2	1,9	2,5	2,9	2,6

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,2	2,4	2,3	2,2	4,4	4,3
Japonia	1,4	1,1	0,6	0,8	2,8	2,7
Kanada	2,5	2,0	1,9	2,0	6,6	6,5
Europar Batasuna	1,8	1,7	1,8	1,7	—	—
Eurogunea	1,8	1,6	1,6	1,4	9,3	8,9
Alemania	1,6	1,7	1,7	1,6	5,7	5,6
Frantzia	1,4	1,5	1,2	1,2	9,4	9,1
Erresuma Batua	1,6	1,4	2,7	2,7	4,8	5,1
Italia	1,1	1,0	1,4	1,3	11,4	11,0
Herbehereak	2,2	1,8	1,5	1,6	—	—

Iturria: Consensus Forecast.